

Gerra errenta da

Antton Izagirre

Ez gaitezen engaina. Parisko sarraskiak Mendebaldeko gizartea hipnotizatu egin du. Ia bestelako aukerarik gabe utzi gaitu. Aukera bakarra omen den ustea egonkortu egin da gizartearen pentsamenduan: «Gerra deklaratu digute eta guztiok gerra horretako partaide gara».

Pentsamendu totalitarioa ezartzeko aukera bikaina eskaini diete Parisko erasoek Mendebalde osoko estatu agintari guztiei. Ekialdeko eraso egileen pentsamendu totalitarioa borrokatzeko Mendebaldeko pentsamendu totalitario eta patriotikoa eraiki nahi dute: Orain denak gara *La France*. Denak gaude «etsaiei» gerra egiteko eragingo dituzten sarraskiak

eta txikizioak eta hilketak onartzera behartuak. Ez dago ihesbiderik: «Gurekin ala gure kontra».

Egia esateko, erasoen irudiak, gorpuak, txikizioak, odola, mina eta dolua komunikabideen bidez hainbeste gerturatu eta sukalderraino sartu dizkigutenez, haiek agindutako diskurtsoan eta agindutako bost minutuko geldialdi eta isilaldian erortzeko tentazioa izan dugu.

Jarrera horrek paralisia dakar. Paralisia ez soilik jardun kritikoan, baita pentsamenduan eta arazoaren analisietan ere. Ikusi besterik ez dago zenbat kosta izan zaigun gerraren aurkako aktibismoa martxan jartzea. Ikusi besterik ez dago Mendebaldearen pentsamendu bakarrari

aurre egitea zenbat ari zaigun kostatzen, eta, oraingoz, zer-nolako geldotasuna inposatu diguten eta mugimendu kritiko eta alternatiboak nola moteldu dituzten.

Horrelakoetan oso arriskutsua litzateke erantzuteko gaitasuna oso talde txiki eta antisistemataraz mugatzea. Antzeko erasoek jarraituko duten ustea oso hedatuta dago, baina horrek ez luke gerraren aurkako gure konpromisoa itzali behar. Garaia da «Gerrari ez» esateko sentsibilizazio kanpaina eta mobilizazioak gaurkotatzen osoz eta kemenez berreskuratzeko. «Gerran» hil direnen giza balioa berdina baita Parisen, Sirian, Moskun, edota Libanon. Horrela ez bada, gureak egin du. •

«París, capital de la modernidad»

Napoleon III.ak Frantziako Komuna amestu eta egia bihurtu zuen hiria eraitsi eta, kale zein eraikinen tamaina biderkatuz, biztanleen kontrol militarra erraztu eta kolonietatik ebasten ziren kapitalak inbertitzea ahalbidetuko zuen hiria berreraikitzeke agindua eman zion Haussman baroiari 1852an. «París, capital de la modernidad» liburuan David Harvey gizarte teorialariak ederki azaltzen duen moduan.

Arrunt ezaguna da botereak kanpo-etsai bat behar duela. Alde batetik, inola ere onartuko ez liratekeen eskubide politikoak ezabatu ahal izateko; egunotan Parisen egiten ari den COP21 goi bileran ikus daitekeenez eta Naomi Kleinek «Doctrina del shock» lanean kontatzen duenez. Bestetik, gerra-ekonomiaren bidez hain boteretsua

den konplexu finantzario-armamentistikoak elikatzeke. Ikus asteotan burtsetan gehien igo diren enpresak zein sektoreetakoak diren. Edo www.bancaarmada.org helbidean azaltzen den zerrendara jo, gerraren kontura noren poltsikoak betetzen diren ikusteko. Europaren ikur diren eskubide sozialak kapitalaren metaketarako oztopo nagusi diren heinean, eskubideon desagerpen prozesuak eragingo dituen gatazka sozialak ekidingo dituen paradigma sekuritario-politikoa inposatu digute. Greziakoa errepika ez dadin.

Sobietar Batasunaren desagerpenaren ondoren, hau guztia justifikatuko zuen etsai berri baten beharra azaleratu zen. Ekialde Hurbilak aukera ezberdinak eskaintzen zituen. Batetik, hain beharrezkoak diren erregai fosilen erreserbak ditu.

Bestetik, Kapitalismoak berezko dituen kontraesanetara apuntatuko ez zuen etsai politikoen sorleku izan zitekeen eta eredu soziala ezbaian jarriko ez zuen «zibilizazioen arteko gerra» fabrikatzeko aukera ematen zuen. Horrela bada, 2001eko irailaren 11, antagonismo politiko-ekonomikorik gabeko gerrari hasiera eman zion *casus belli* gisa uler daiteke. Mendebaldeak munduan ematen diren ekintza «terroristen» %2 besterik pairatzen ez dituen bitartean, eskualde guztia hankaz gora jarri, erregai fosilak eskuratu eta, inolako mehatxu errealek suposatzen ez duen etsaia sortuz, ilargira begiratzeari utzi eta hatza begiratzera behartu gaituzte. Tontoek egiten duten moduan. Parisi eraso egin diote. Ez da lehenengo aldia, baina, kapitalaren dinamikek Paris kolpatzen dutena. •

Andoni Egia